

Udalergi Euskaldunen oraina eta geroa

David Anaut

1994.eko otsailaren 24, 25, 26 eta 27an "Udalergi Euskaldunak: oraina eta geroa" I. Jardunaldiak burutu ziren Donostian eta Lizartzan. Bertan udalergi euskaldunen orainaz eta geroaz hausnarketa aberatsa egin zen, ikusmolde eta ikuspuntu ezberdinak bilduz: erakunde publikoak, alderdi politikoak, gizarte-mugimendua, irakaskuntza, udalak... Gune sozio-geografiko euskaldunei behar duten lehentasuna eta trataera berezia aitortu zitzairen eta udalergi euskaldunen mugimenduaren garapenerako akordio eta laguntza beharra aldarrikatu zen, euskaraz eta euskaraz bizitzeko proiektuak aurrera egin dezan.

On 24th, 25th, 26th and 27th February 1994, the I Debates on "Basque Municipalities: Before and after" took place in San Sebastian and Lizartza. The past and future of the Basque Municipalities were greatly discussed, gathering many different perspectives and points of view: public organisations, political parties, social movements, education, city councils... Recognition of the preference and special treatment that each socio-geographical group should get was given, and it was declared that it was necessary to reach an agreement on the development and help for the Basque Municipalities Movement, so as to push forward the project to encourage Basque citizens to live and use the Basque Language.

Sarrera

1994.eko otsailean Donostian eta Lizartzan egin diren jardunaldien ondorio bat aipatu behar izatekotan, erronka honi eutsi eta aurrera egiteak merezi duela esanen genuke. Jaio berria den mugimendu honek, ezinbestean, gorabeherak izan ditu eta izanen ditu bere jardunean, baina behar adinako kemena erakusten badu ez da nolana hikoia izanen hizkuntz normalkuntzari emanen dion bultzada.

«Jardunaldiotan gai honen inguruan egon daitezkeen ikuspegi eta ikuspuntu anitzei heldu nahi izan zaie, argitaratzea mereziko duen korpus teoriko minimo bat sortuz»

Jardunaldiak, eta batipat edukiaren aldetik, aberatsak izan dira. Hitzaldi eta eztabaidetan zehar ikusmolde ezberdinak agertu dira eta honek udalerrri euskaldunen oraina eta geroa baldintzatuko dituzten eragile ezberdinak aztertzeko aukera eskaini digu: hezkuntza sistemaren metodo nahiz ondorioak, euskararen egoeraren ikuspegi estatistikoa, herriotako bizitasun sozioekonomikoa, instituzio, alderdi nahiz gizarterakundeen jarrera... eta baita, zergatik ez, fikzio apur bat egiteko parada ere.

Honek guziak udalerrri euskaldunetan bizi den errealitatearen alderdi ezberdinez jabetzen lagundu digu, hausnarketa sakon batek herri hauen inguruko ikuspegi zabala edukitzea eskatzen baitzuen.

Ideiak bildu eta landu

Udalerrri euskaldunen mugimenduaren jaiotzak ziurrenik gogoeta asko eragin ditu, planteamendu berria izaki (Euskal Herrian bederen) normalizazioaren bidean formula ausarta eta emankorra izan baitaiteke. Ildo honetan, eta ideia horiei gorputza emanez, jardunaldiotan gai honen inguruan egon daitezkeen ikuspegi eta ikuspuntu anitzei heldu nahi izan zaie, argitaratzea mereziko duen korpus teoriko minimo bat sortuz.

«Hutsuneren bat aipatu behar eta, gauden tokian gaudenez, Nafarroa eta Iparraldearekiko erreferentzien eskasia azpimarratuko dugu»

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen historia, errol-detako datuen zenbait gorabehera, udalerriotan euskarazko irakaskuntzaren emaitzak zertan diren, bizitasun sozio-ekonomikoaren garrantzia, instituzio edo herri-mugimenduaren ikusmoldea ezagutu nahi dituenak, txosten hauetara jo dezake.

Hutsuneren bat aipatu behar eta, gauden tokian gaudenez, Nafarroa eta Iparraldearekiko erreferentzien eskasia azpimarratuko dugu. Txostengile edo hizlarien jatorria dela, inguru honetan normalkuntza-prozesuaren garapen ahula dela, edo nekez gainditzen dugun inertzia dela, ponentzia edo hitzaldi gehienetan (ez denetan) errealitate horiek ahaztuxeak

geratu zaizkigu.

Udalergi Euskaldunen mugimendua: Lehentasuna

Udalergi Euskaldunen mugimendua jaio berria bada ere, hizkuntzaren normalkuntzarako gune sozio-geografiko euskaldunek duten garrantzia dela eta, jardunaldiotan agertu direnak bat datoz mugimendu honek hizkuntz politikaren diseinu eta gauzatzean izan beharko duen lehentasuna aitortzerakoan.

Hizkuntz Politikaren ardatza izanen ez bada ere, lehentasuna izanik, orain arteko oztopo eta inertiak gaintuz euskaraz bizitzeko asmoa betetzen ari diren udalergi hauek arreta berezia eta babesa behar dute. Honelaxe adierazi zuten bertaratuek, beraz, hala bedi.

Udaletik, Herritik

Udalergi euskaldunok hizkuntz politikaren diseinuan eta euskararen normalkuntza prozesuan behar duten tokia definitzea oso interesgarria eta beharrezkoa da; baina honekin batera, eguneroko praktikan sortzen diren gorabeherak eta esperientziak jaso eta agertzea ere ezinbestekoa izanen da Udalergi Euskaldunen Mankomunitatearen lanari norabide egokia emanen badiogu eta helburu praktikoak eskuratuko baditugu.

Zentzu honetan, udaletik dihardutenen esperientzia ezagutu ahal izan dugu, eta gaztelerak lehenagotik irabazita dituen esparruetan inertiak gaintzearen zailtasunaz jabetu. Baina era berean, euskaraz bizitzeko borondate argiak hasieran uste baino emaitza oparagoak eman ditzakeela eta arazoei gehienetan aurki dakiekeela konponbideren bat esan behar da.

Bestalde, herrian eta herritik udalergi euskaldunen proiektu hau nola eta noraino jaso eta bizi den aztertzei aukera izan dugu. Ikusi dugunez, herritarrekiko lana indartu beharra dago: informazioa zabaltzea, alfabetatzea orokortu, harremanak sendotu eta hizkuntzaren erreproduktzio bideak eskuratu eta ziurtatzea, azpimarratu dira eman beharreko urratsen artean, begibistakoa baita udalergi euskaldunen proiektuak zabala izan behar duela herritarrak ere bereganatuz eta ez udal-administrazio hutsean mugatuz.

Udalergi Euskaldunen etorkizuna aztergai

Udalerriotan euskararen etorkizuna bizitasun sozio-ekonomikoarekin uztartzea izan da, gure ustez, jardunaldi haue-

«Jardunaldiotan agertu direnak bat datoz mugimendu honek hizkuntz politikaren diseinu eta gauzatzean izan beharko duen lehentasuna aitortzerakoan»

«Euskaraz bizitzeko borondate argiak hasieran uste baino emaitza oparagoak eman ditzakeela eta arazoei gehienetan aurki dakiekeela konponbideren bat esan behar da»

«Udalerriotan euskararen etorkizuna bizitasun sozio-ekonomikoarekin uztartzea izan da, gure ustez, jardunaldi hauetako ekarpen interesgarrietako bat»

tako ekarpen interesgarrietako bat. Ezin, beraz, euskararen egoera bere inguruetik banatu, hizkuntzaren bizia bere lurralari atxekirik baitago, batipat gisa honetako herriotan.

Gaur egun gauzatzen ari den nekazal politikak eta lurralde antolaketarako ezartzen ari diren erizpideek gaurdainoko errealitatea erabat desitxura dezakete fenomeno bikoitz baten ondorioz: alde batetik, nekazal bizimoduaren hondatzeak baserri eta herrien hustea dakar eta, bestalde, lurralde antolaketa berriak herri hauek bigarren etxebizitzarako gune eta hirietako dentsitate altuegiari aurre egiteko gune bihurtzake.

Zer esanik ez, ondorio hauek gauzatuz gero hizkuntz errealitatea ere aldatuko litzateke eta herri hauetako kultur altzorak, eta euskarak bereziki, behera egin lezake.

Inguru hauek, beraz, eta baita hizkuntzaren aldetik ere, arreta berezia behar dute eta, jardunaldien ondorioetan aipatzen den eran, eskualde berezi izendatuak eta babestuak izan.

Euskaraz bizi, euskaran bizi

Jardunaldiotan plazaratu ziren gaien artean, kontraesan irudi lezakeen egoera hau ere nabarmenduko genuke: zenbait partehartzailek, euskarak herri euskaldunenetan ere kultur hizkuntza gisa gazteleraren ondoan ageri duen ahulezia azpimarratu zuten. Era berean, beste batzuk euskararen alderdi afektiboa kili-kolo gelditzen ari dela zioten.

Kontraesan baino, ziurrenik, txanpon beraren bi aldeak izanen dira. Hizkuntz funtzio formalen eta funtzio informalen arteko orekari ezin eutsiz gabiltzalako ote? Jakina, herri euskaldunenetan ere hizkuntz funtzio formalak erderak bereganatu izan ditu eta honek oreka, baita euskararen barne oreka ere, hautsi du.

Euskara gizarte-esparru guzietara zabaltzeaz gainera (euskaraz bizi), euskararen alderdi afektiboari eutsi eta euskara sentitzera (euskaran bizi) iritsi beharko genukeela dirudi.

Nafarroatik

Aukera hau baliatuz, eta agian lehentxeago aipatu hutsunea betetzeko, gure txokotik ere zerbait esan beharrean gaude:

Nafarroan euskarak bizi duen egoera dela bide, eta normalkuntzarako bideak gaur egun dituen mugapenak ezaguturik, Mankomunitatean dauden udalerrri euskaldunon espe-

«Inguru hauek, beraz, eta baita hizkuntzaren aldetik ere, arreta berezia behar dute eta, jardunaldien ondorioetan aipatzen den eran, eskualde berezi izendatuak eta babestuak izan»

rientzia hagitx lagungarri izan daiteke. Hizkuntzaren ezagupe-
naren indizeek erakusten digutenez herri asko dira tipologia
honetan (bizilagunen %80tik gora euskaldunak) sartzen dire-
nak eta, beraz, baldintza "objetibo" hori betetzen dutenak.

Egun dinamika honetan sartu direnak izan daitezke gai-
nontzekoek erreferentzi gisa erabiliko dituztenak eta udale-
rriotan euskaraz bizitzeko proiektuari bultzada polita eman
ahal izanen diotenak. Orainsu arte bi izan badira, Leitza eta
Goizueta, berriki Sakanako Urdianek ere Mankomunitatean
sartzeko erabakia hartu du, eta hemendik ongi etorria ematen
diogu, sar litezkeen guzietan emanen geniekeen bezelaxe.

Balantze moduko bat

Balantzea egitean, alderdi negatiboan jarriko dugu lehen-
dabiziko bi egunetan unibertsitatean buruturiko eztabaide-
tako etortze eskasa. Alde horretatik, eta egote fisikoari dago-
kionez behintzat, ez da lortu unibertsitatea bezalako toki
batean udalerrri euskaldunon esperientziari buruzko jakinmi-
na eta interesa piztu eta indartzea.

Alderdi positiboan, aldiz, egunotan sortu diren gogoeta eta
hausnarketa aberatsak, parte hartu dutenen aldetik oro har
adierazi den jarrera baikorra, eta ekimen honen inguruan
lanean ari diren edota ekarpenik eskain dezaketen horiek
elkar ezagutu eta elkarri informazio nahiz eritziak emateko
aukera, horrek guzietan udalerrri euskaldunen jarduna sendotu
eta bizkortzea ekarri baitezake.

Ondorioak

Ondorio gisa, eta egunetakoa labur-labur jasota gera da-
din, jardunaldien ondoren bertan bildutakoek adierazitakoa
hitzez hitz emanen dugu:

*"Udalerrri Euskaldunak: Oraina eta Geroa" I. Jardunaldien
ponentzietan egindako ekarpenak eta ondorengo eztabai-
detan aztertutakoak entzun ondoren, bertan bildutakoek
honako hauek adierazi nahi ditugu Jardunaldien ondorio
gisa:*

*-Jardunaldietara bertaratutako ente sozial, politiko eta
instituzional guzietan, Euskararen Normalizazioaren pro-
zesuaren baitan Udalerrri Euskaldunek osatzen duten gu-
nearen garrantzia azpimarratu dute.*

*-Zentzu honetan, beste giza-sektoreen aurrean erreferen-
tzi bihurtzen ari den heinean eta duen eragipen-ahalmena
kontutan hartuz, etorkizunari begira Udalerrri Euskaldunen*

*«Zenbait partehar-
tzailek, euskarak
herri euskaldunene-
tan ere kultur hizkun-
tza gisa gazteleraren
ondoan ageri duen
ahulezia azpimarratu
zuten»*

*«Euskara gizarte-
esparru guzietara
zabaltzeaz gainera
(euskaraz bizi),
euskararen alderdi
afektiboari eutsi eta
euskara sentitzera
(euskaran bizi) iritsi
beharko genukeela
dirudi»*

«Udalerrri hauek pairatzen ari diren egoera sozioekonomikoa kontutan hartuz, lurralde antolaketari eta garapen ekonomikoari dagokionez Udalerrri Euskaldunentzat trataera berezia eskatzen da, zonalde berezi gisa izendatuak eta babestuak izan daitezzen»

mugimendua Hizkuntza Politikaren lehentasunen artean kokatu beharko da. Honek ez du esan nahi Hizkuntza Politikaren ardatza izango denik, baina bai lehentasunen artekoa.

-Beraz, eta azpimarratu zaion garrantziagatik, Udalerrri Euskaldunen mugimenduak, eta zehazkiago Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak, bere garapenerako laguntza berezia beharko du.

-Zentzu horretan, eta Udalerrri hauek pairatzen ari diren egoera sozioekonomikoa kontutan hartuz, lurralde antolaketari eta garapen ekonomikoari dagokionez Udalerrri Euskaldunentzat trataera berezia eskatzen da, zonalde berezi gisa izendatuak eta babestuak izan daitezzen.

-Bestalde, UEMA Mankomunitateak, Euskal Herri osoko instituzioen arteko akordioak bultzatuko ditu. Halaber, alderdi politikoei ere Udalerrri Euskaldunen mugimendua sustatzeko akordioa eskatuko die eta harremanak bideratuko ditu Instituzio zein Erakunde Sozialekin.

-Azkenik, UEMA Mankomunitateak Udalerrri Euskaldunen inguruan osatzen ari den diskurtsoaren sozializazioa bultzatu eta bere garapen teorikoa landuko du.

David Anaut

Leitza, Goizueta, Arano eta Arexoko

Eus-
kara Teknikaria

Director of linguistic normalization for the Local Authorities of Leitza, Goizueta, Arano and Arexo